

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2418

465/2018 EBAZPENA, apirilaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, deialdia egiten da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko dagokion Irakaskuntza Unitateko Erizaintza Obstetrikoginekologikoko (Emagina) Osasun Prestakuntza Espezializatuaren ikasketaburuaren eginkizunak lehiaketa bidez betetzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erizaintza obstetrikoginekologikoko (emagina) osasun-prestakuntza espezializatuko ikasketaburuaren eginkizunak betetzeko beharra egonda, deialdi honetan aplikatu behar dira, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko Dekretuaren (martxoaren 6ko 34/2012 Dekretua) 12.etik 18.era bitarteko artikulua eta, bestetik, dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa. Deialdian aurreikusitakoaren arabera, aipatutako dekretuaren 18.3 eta 24.3.b) artikuluetan eta laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako ordainsari indibidualak aurrekontuen legeak jasotzen dituen baliabideei jarraikiz dagozkien ordainsari-konzeptuan gauzatu ahal izango dira. Ordainsariok, zehatz eta eraginkortasunez gauzatuko dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiak erabakia ezartzeko emandako ebazpenean zehazten duen egunetik aurrera.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legearen (ekainaren 26ko 8/1997 Legea) hirugarren arau komuneko 28. artikuluan, Osakidetzaaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen Dekretuan (uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua), azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren Dekretuan (martxoaren 6ko 34/2012 Dekretua) ezarritakoari jarraikiz, Zuzendaritza Nagusi honek erabaki du deialdi publikoaren deialdia iragartzea, ondoren jasota dauden oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1.– Xedea.

Deialdi honen xede da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erizaintza obstetrikoginekologikoko (emagina) osasun-prestakuntza espezializatuko ikasketa-buruzagitzaren eginkizunak betetzea; hain zuzen, lanpostu bati berariaz esleituta ez daudenak. Martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, gutxieneko dedikazioa lanaldiaren % 10 izango dela ezartzen da. Deialdi honen xedeko ikasketa-buruzagitzaren eginkizunen dedikazio-erregimena, hilabetearen 28 ordukoa izango da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

Baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek parte hartu ahaliko dute deialdian:

- Osakidetza-plazadun pertsonal finkoa izatea, emagin gisa (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontrataduna).
- Gutxienez 4 urteko esperientzia izatea B1 lanbide-taldean.
- Zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran egotea.

3.– Merezimenduen baremoa (gehienez 100 puntu).

Merezimenduen balorazioak bi fase izango ditu:

A) Proiektua eta bere defentsa (gehienez, 50 puntu).

Hautaketa Batzordearen aurrean, proiektu-memoriaren jendaurreko azalpen esplikatzailea egi-tea izango da, kasuan kasuko ikasketa-buruzagitzaren kudeaketari buruzkoa, eta hautagaiekin elkarrizketa bat egitea.

B) Merezimenduen balorazioa (gehienez, 50 puntu). Puntuak honela banatuko dira:

- Esperientzia giza taldeen kudeaketan (gehienez, 10 puntu).
- Erizaintzako gainbegirale/koordinatzaile bezala edo Lehen Mailako Atentzio Unitateetako buru gisa jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,0750 puntu.
- Erizaintzako adjuntu gisa jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.
- Zuzendari gerente, Erizaintzako zuzendari edo zuzendariorde gisa jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,1250 puntu.

Lan-esperientzia gisa aintzat hartuko dira Osakidetzako, Gizarte Segurantzako, autonomia-erki-degoetako edo edozein administrazio publikotako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan emandako zerbitzuak, baita Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan emandakoak ere.

Guztizko denbora zenbatzeko, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan eta hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak ez dira zenbatuko. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da aintzat.

- Esperientzia klinikoa (gehienez, 10 puntu)
- Erizaintza obstetrikoginekologikoko (emagina) diplomadun sanitario gisa emandako zerbitzuko hilabete bakoitzeko, lanbide-talde honetako edozein lanpostu funtzionaletan (0,05 puntu).
- Diplomadun sanitario gisa emandako zerbitzuko hilabete bakoitzeko, lanbide-talde honetako edozein lanpostu funtzionaletan (0,025 puntu).

Lan-esperientzia gisa aintzat hartuko dira Osakidetzako, Gizarte Segurantzako, autonomia-erki-degoetako edo edozein administrazio publikotako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan emandako zerbitzuak, baita Europako Batasuneko gainerako estatu kideetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan emandakoak ere.

Guztizko denbora zenbatzeko, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan eta hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak ez dira zenbatuko. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da aintzat.

- Irakaskuntza eta ikerkuntzako esperientzia (gehienez, 10 puntu):
- Irakaskuntzako jardura (gehienez, 5 puntu):
- Diplomatura Sanitarioko irakasle titularra, elkartua, laguntzailea (urteko): 0,5000 puntu.
- Diplomatura Sanitarioko praktiketako tutore arduraduna (urteko): 0,5000 puntu.

• Erizaintza obstetrikoginekologikoko erizaintzako (emagina) espezialitateko tutorea (urteko): puntu 1.

- Espezialisten prestakuntzako irakaskuntzako laguntzailea (urteko): 0,5000 puntu.
- Irakaskuntza egiaztatutako etengabeko prestakuntzan (orduko): 0,05 puntu.
- Espezialitateko nahitaezko prestakuntza teorikoko irakaskuntza (orduko): 0,05 puntu.
- Ikerketako jardura (gehienez, 5 puntu):
- Doktore-titulua: 1,0000 puntu.
- Ikerkuntzako nahikotasuna/lkasketa aurreratuetako diploma (DEA): 0,7500 puntu.
- Ikerketa-proiektuak (ikertzaile nagusia): 0,2000 puntu proiektuko.
- Ikerketa-proiektuak (ikertzaile laguntzailea): 0,1000 puntu proiektuko.
- Sariak eta goraipamenak ikerkuntzari: 0,1000 puntu sariko.
- Biomedikuntzaren eremuko patenteak eta modeloak: 0,2000 puntu erregistratutako patente edo modelo bakoitzeko.
- Ikasketa-buruzagitzaren, prestakuntza espezializatuko tutoretzaren, tutore laguntzailearen eginkizunetan izandako esperientzia (gehienez 10 puntu).
- Ikasketa-buruzagitzaren eginkizunetan jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.
- Adierazitako gainerako eginkizunetan jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,0750 puntu.
- Irakaskuntzako Batzordeko partaidetza (gehienez, 10 puntu); kasuan kasuko bileren akten bidez edo Irakaskuntzako Batzordeko presidentearen agiriaren bidez egiaztatuta, 0,2500 puntu parte-hartze bakoitzeko.

4.– Euskararen ezagutza (gehienez 10 puntu).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko Dekretuan (mar-txoaren 18ko 67/2003 Dekretua) ezarritakoaren eta haren garapen-arauen arabera baloratuko da.

5.– Eskabideak aurkezteko epea.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusira (Araba kalea, 45. 01006 Vitoria-Gasteiz) igorri beharko dituzte eskabideak, 20 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horretaz gain, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 38.4 artikuluan ezarri bezala ere aurkez daitezke.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusira bidali behar dute eskabidea, beren datu pertsonal guztiekin eta «Curriculum Vitae»arekin batera. Dokumentazioa honela aurkeztu beharko da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.

c) Egindako zerbitzuen ziurtagiri original eguneratua, deialdia EHAAr argitaratu zen eguneko kategoria zein den adierazita.

d) Ikasketa-buruzagitzaren kudeaketako proiektu-memoria; deialdi honen xedeko eginkizunena, alegia.

e) Merezimendu baloragarri guztien fotokopia konpultsatua.

Datu batzuk modu egokian balioztatuta baldin badaude CVaren aplikazio informatiko korporatiboan, orduan ez da beharrik izango horiek aurreko paragrafoan zehazten den bezala egiaztatzeko, baina eskabidean eman beharko da inguruabar horren berri.

6.– Hautaketa Batzordea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko Dekretuaren (martxoaren 6ko 34/2012 Dekretua) 16.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak izendatuko du Hautaketa Batzordea.

Hautaketa Batzordea eratuko da, 7 kidek osatuta: batzordeburua, idazkaria eta 5 batzordekide.

- Osakidetza Erizaintza zuzendariordea, batzordeburua izango dena.
- Osakidetza zerbitzu-erakunde bateko Erizaintza zuzendaria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko prestakuntza espezializatuko ikasketaburu bat.
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko prestakuntza espezializatuko ikasketaburu bat.
- Irakaskuntza-unitate bateko izendapena egiaztatua duen emagin tutore bat.
- Osasun Saileko Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko zerbitzuburua.
- Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritza teknikeri bat, idazkaria izango dena.

Hautaketa Batzordeko saio bakoitzean dagokion akta jasoko da. Bertan, honako hau adierazi beharko da: izangaien izenak, baremazioko irizpideak, merezimenduen baremoaren atal bakoitzean emandako puntuazioa eta emandako puntuazioa guztira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko Dekretuaren (martxoaren 6ko 34/2012) 16.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Hautaketa Batzordeak izendapenaren proposamen bat aurkeztuko dio zentroko gerenteari, eta horrek, proposamena kontuan hartuta, izendatuko du aukeratutako izangaia. Zentroko zuzendari gerenteak zuzendari nagusiari emango dio izendapenaren berri, jakinaren gainean egon dadin.

7.– Hautatzeko prozedura.

Hautaketa Batzordeak dokumentazioa baloratu behar du, betiere hautagaiek behar den epean eta moduan aurkeztu badute.

Ezingo dira baloratu, inolaz ere, deialdiaren iragarkia EHAAr iragartzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta ziurtatu ez direnak ere.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta haren arabera, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Aurretiaz txostena eginda, Balorazio Batzordeak betetzeke utzi ahalko du lanpostua, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

8.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

Martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 18.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eremu publikoan, prestakuntza espezializatuko ikasketaburuak egindako lanen aitortzea dagokion mailaren aitortzearen adieraziko da karrera profesionalean, aipatutako arauan ezarritako dagoen moduan, baita hautaketa- eta horniketa-prozesuetan ere.

9.– Ordainsarien eraginkortasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko Dekretuaren (martxoaren 6ko 34/2012 Dekretua) 18.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, izendapenaren ondorioz sortutako ordainsari indibidualak ez dira inongo ordainketa-konzeptutan gauzatuko, aipatutako dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik, erabaki hori ezartzeko Osakidetza zuzendari nagusiak horri dagokion ebazpena ematen duen eta argitaratzen ez den bitartean.

10.– Ikasketaburuaren errendimenduaren aldia behingo ebaluazioa.

Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko Legearen (azaroaren 21eko 44/2003 Legea) 10. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, ikasketaburuari dagozkien eginkizunen jarduerak kudeaketa klinikoaren eginkizunen izaera izango du eta, ondorio zuzen gisa, jarduera eta emaitzen aldia behingo ebaluazioa izango dute.

Hautaketa Batzordea sortzeko prozedura berari jarraituz eratuko den beste batzorde batek burutuko du ebaluazioa lau urtean behin eta, kasua bada, erabakia hartuko du ikasketaburuak eginkizunak burutzen jarraituko duen berresteko edo, aldiz, eginkizun horiek kentzeko. Ebaluazioak aintzat hartuko du zentro edo unitateko plan estrategikoan eta irakaskuntzaren kalitateko kudeaketako planean jasotako helburuak bete ote diren.

11.– Ebazpen honen aurkako errekursoak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekursoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 20a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.